

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pakita Eizagirre Arruti

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Zarauzko Santa Marina kalean jaio zen, 5 anai-arrebaren artean txikiena bera. Ama Aiakoa zuen eta aita zarautztarra, lanbidez ebanista; gerora, Alfa lantegiko zuzendari izan zen. Pakitak josten ikasi zuen eta orduko teknikak eta lanak gogoan ditu. Zarauzko bizimoduan izandako aldaketak ezagutu izan ditu. [Jesus Mari Unanue](#)rekin ezkondu eta bi alaba izan zituzten.

Zintak

ZAR-134

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2011-07-18
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. 'Torito' eta 'Aitzaki' kuadrilla

- **Erref:** ZAR-134/002
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:00:14. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Jesus Marik hondartzako futbol-txapelketan jokatzen zueneko argazkia erakusten dute. Torito deitzen zioten lagun bati, eta ezizena nondik zetorkion azaltzen dute. Aitzaki kuadrillakoa zen Jesus Mari.</p>

2. Hondartzako futbol-txapelketako janzkera

- **Erref:** ZAR-134/004
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:02:57. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Hondartzako futbol-txapelketan denek uniforme berdina izateagatik, soldaduskako alkandora erabili zuten.

3. "Memorial Zaporra"

- **Erref:** ZAR-134/006
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:04:27. **Bukatu:** 00:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Zaporra bere kuadrillako laguna zen, eta haren aitak tren-geltokian egiten zuen lan; tarte bat zuen bakoitzean, baina, frontoi txikira joaten zen pilotan jokatzera. Gerora, "Memorial Zaporra" txapelketa egiten hasi ziren haren omenez.</p>

4. Plaza Musikako giro ona

- **Erref:** ZAR-134/010
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:08:23. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>Zarauzko Plaza Musikako kioskoan musika izaten zen, eta jende asko ibiltzen zen dantzan. Aguazilak tokia egin behar izaten zuen jendearentzat. Euria egiten zuenean ere, aterkiarekin dantzatzen zuten. Garai hartan konfiantza handia zegoen elkarren artean. Musikako atsedenaldia zenean, neskak paseoan ibiltzen ziren eta mutilak txikiteoan; neskak ez ziren tabernatan sartzen.</p>

Transkripzioa

-Jesus Mari: Hemen, musika jotzen zun kioskuan, Plaza Musikan. Orduan banda zeon ta, bi, bi, ta hiru jotzen zituen, ta pieza jotzen zanian neskai txanda eskatu, dantza in. Hurrengo zea jo arte, han in [dik] tontuana iten.

-Pakita: Ta orduan plazan eoten zan jende asko,

-Jesus Mari: Hola plaza, korruan.

-Pakita: Aguazilla ibiltzen zan korrua iten. Jendia bultzatzen jendiantzat tokiya iten.Ta euriya iten bazun guardasolakin, ta dantzan. Ta geo alertzen bazun, kioskuan laga. Baiño lapurtuko zuenikan bat´e bildurrik gabe. Han laga ta geo hurrena jun, ta hartu, ta bat´e zeaik gabe. Ta musika deskantsuan, neskak ibiltzen giñan, atzea ta aurrea Kale Nausiyan: farmazitikan, parrokira, parrokitik zea, adios, adios. Ta hurrena musika hasten zanian berriz´e dantza.

-Ta bitartian mutillak baita ere pasian?

-Jesus Mari: Txikiteuan.
-Pakita: Mutillak hauek txikiteuan. Ez, neskak ibiltzen giñan gehiena. Geo, han baten bat baldin bazan, neskakin nahi o neska-mutillakin, han hitz eiten kuadrillan-ta, zea hori. Baiño han, plazan ta kale nausiyen, ez zeon beste zeaikan, hortxen.
-Ta neskak tabernan sartzia?
-Jesus Mari: Ez! Orduan ez zian sartzen.
-Pakita: Buf! Taberna mutillakin jun ber zenun, bestela sartzen baziñan...

5. Bikoteka dantzatzeko pausoak

- **Erref:** ZAR-134/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:10:19. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Dantzaldietan dantza lotua dantzatzen zuten. Mutilek neskei nola eskatzen zieten dantzatzeko azaltzen dute.

6. Aterkiari esker ezagutu zuten elkar

- **Erref:** ZAR-134/012
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:13:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Nola ezagutu zuten elkar azaltzen dute: Pakitari aterkia hautsi zitzaion, Jesus Marik konpondu egin zion, eta handik aurrera pixkanaka tratua egiten joan ziren.

7. Distantzia Zarautzen lehen

- **Erref:** ZAR-134/014
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:13:41. **Bukatu:** 00:15:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Kale berean bizi baziren ere, Pakita eta Jesus Mari ez ziren betidanik ezagutzen. 9 urte zituenerako, Pakitaren familia etxez aldatu zen eta oso urruti joan zirela iruditzen zitzaion Pakitari. Garai hartan Zarautz nolakoa zen azaltzen dute.

8. Telefono gutxi zeneko garaia

- **Erref:** ZAR-134/015
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:34. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Nobiotan zer-nolako planak egiten zituzten azaltzen dute. Lehen ez zen telefono askorik herrian. Udaletxean telefonogunea zegoen, eta gerora telefono-kabinak beste lokal batean jarri zituzten. Orduko giroa gogoan dute.</p>

Transkripzioa

- Ze plan iten zenituzten?
- Jesus Mari: Planak?
- Nobiyotan o.
- J. M.: Plana... lana.
- Zinea juten ziñaten o...?
- J.M.: A, bai! Jaiero... Jaieroko plana? Eguardian ateatzen giñan ta Royaltyra jun ta bermuta hartzen han egon. Gero bostetan billa juten nitzanian, berriz kafesne bat edo hartuaz ta gero zazpi t´erditan zinea. Ta zinetik beatzi t´erditan etxea.
- Ta hori, elkar ikusteko, astian zehar ikusten ziñaten o?
- J. M.: Bai. Suerte hori gekaun, nik lana pixkat aurrexio iten nun, tallan, ta hau balkoian ateatzen zan eskobakin ta zeakin ta. Geo jaisten zan ta... Eskoba [...] ta... E?
- Oseake, telefono askorik ez zenuten bihar.
- J. M.: Ez, ez.
- Pakita: Ez telefonorik eta ez kartik.
- J.M.: [...]
- P.: Ordun telefonua ez zeon...
- J.M.: Ke ba!
- P.: Guk han taillarrekua edo zea bat jarri ziguen bat goian, etxian zeatzeko, enkarguak-eta hartzeko o zeatzeko, baiño bestela telefonoik ez zeon. Hemen aiuntamientuan zebeñ.
- J. M.: Zentrala.
- P.: Zentral telefonika, kabinak eta. Horrea juten zan jendia.
- J. M.: Zuk hitz ein nahi bazenun, jun horrea ta ordua jartzen zizuen ta “conferencia”, bostetan, ta juten ziñan ta “al tres” ta hortik hitz eiten zenun.
- Ta noa deitzen zun jendiak?
- P.: A, ez dakit... Beren... Langille... Taillerretako jende asko´re etortzen zan horrea. Gero hemen jarri zuen, oain pelukeiya daon hontan, Lanbroa ta pelukeiya daon hontan.
- J. M.: Zentrala. Zentrala hor.
- P.: Telefonika... Ta hor´e kabinak zebeñ. Gu hemen lotan ta gabian, osea, “Zaragoza!!!” ta beraneantiak-eta horrea etortzen zian nahi zuenian deitu beren zeara o... Ordua jarri ta...

9. Lehen abesteko ohitura handiagoa zegoen

- **Erref:** ZAR-134/018
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:22:12. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

Lehen gaur baino gehiago abesten zen. Orduko kanta bat abesten du Jesus Marik.

10. Laranja-azalak eta gutiziak

- **Erref:** ZAR-134/021
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:26:19. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean gose handia pasa zuten. Laranja azalik gabe etortzen ziren, azalak bolbora egiteko erabiltzen omen zituztelako. Errekondo dendari eta lehengo gutiziei buruz hitz egiten dute.

11. Soldadutza Irunen eta euskara ahoan

- **Erref:** ZAR-134/024
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:35:32. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

<p>Jesus Marik Irunen egin zuen soldadutza; 18 hilabete egon zen han. Guadalupeko gotorlekuan egotea tokatu zitzaion. Euskaldunen artean euskaraz egiten zuten soldadutzan. Zarautzen euskaraz asko hitz egin izan da.</p>

12. Jertseak egiten ahizpekin batera

- **Erref:** ZAR-134/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:44:56. **Bukatu:** 00:46:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

5 anai-arreba ziren eta Pakita denetan txikiena. 14 urte zituela, jertseak egiten ikasi zuen Pakitak; gerora, ezkondu bitartean, 3 ahizpak aritu ziren etxean jertseak egiten.

13. Jertse motak eta materiala

- **Erref:** ZAR-134/031
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:46:49. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Lehengo jertseak nolakoak ziren azaltzen du. Rebeca jertsearen izena film batetik omen dator. Jertseak egiteko hari normala erabiltzen zuten, baina batzuetan beste material klase batzuk ere bai.

14. Jertseak egiteko taldeko lana

- **Erref:** ZAR-134/032
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Hiru ahizpen artean egiten zituzten jertseak; bakoitzak zer zeregin izaten zuen azaltzen du.

15. Maxi Orokieta maistra gogoan

- **Erref:** ZAR-134/034
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Pakitak eskolan ikasi zuen joste-lanak egiten, doña Maxi Orokieta maistrarekin: emakume hark denetik omen zekien; takigrafia ere ikasi zuten harekin.

16. Miserikordian eta herri-eskolan ikasitakoa

- **Erref:** ZAR-134/035
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:53:37. **Bukatu:** 00:54:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Pakita Miserikordian ibili zen eskolaurrean, baina 7 urte zituela, herri-eskolan hasi zen: han 4 maistra zituzten; erdaraz ikasten zuten; euskal izenak zituzten neskei erdarazko izenez deitzen zieten...

17. Pazko loratua, txartelak eta konfesatzeko ilarak

- **Erref:** ZAR-134/037
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:58:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Urtean behin Pazko loratua izaten zen eta txartela ematen zuten; jauna hartzera joatean, txartel haren bidez kontrolatzen zuten zenbat jende joaten zen mezara. Aste Santuan Oriotik jende asko etortzen zen Zarautza konfesatzera. Orduko anekdotak kontatzen dituzte.

18. Konfesatzeko modu desberdinak

- **Erref:** ZAR-134/038
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:58:04. **Bukatu:** 00:59:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mutilak eta neskak ez ziren berdin konfesatzen: apaizak mutilei burutik heltzen zien batzuetan, goxotasunez; emakumeak, ordea, burdin-sareen beste aldean egoten ziren.

19. Haurrak izateko prestaketak

- **Erref:** ZAR-134/040
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:00:20. **Bukatu:** 01:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Pakita haurdun egon zenean, gutxitan joan zen Donostiara bere egoera begiratzera, Zarauzko familia-medikuarengana bakarrik baizik. Bi alabak etxean izan zituzten. Jesus Mari laguntzen egon zen haurra jaiotzean. Ohea prestatu egiten zuten minak hobeto aguantatzeko.

20. Umeak zaintzeko aurrerakuntzak

- **Erref:** ZAR-134/044
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:07:25. **Bukatu:** 01:09:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>Hurrei telazko pixoihalak jartzen zizkieten; hasiera batean, zapi batean biltzen zituzten gainera. Bigarren alaba izan zutenerako, baina, aurrerapenak egon ziren eta asko erraztu zuten lana.</p>

Transkripzioa

- Umien... oain paketiak-eta ibiltzen dianak...
- Pakita: Ez zeon ezer´e holakoik.
- Ordun, ze iten zan hortako?
- Jesus Mari: Sukaldeko sokian... "Pañales" o esaten da.
- P.: Bai, telazkuak iten zien. Dana aurretik preparatu ber zendun, telazkuak eta barrutik felpa zula. Zeakin, ta soka batzuek jarri ta sokakin lotu. Ta geo, gaiñea, txiki-txikiya zanian, zapi batian bitu. Hola, borobil-borobillian. Ta kamiseta zea ta jertse bat. Geo kaleako, ba, zapi hori kendu, ta faldoia o jarri. Ta ordun... Oain? oain erdi lanikan ez. Geo, bigarreña izan nuneako, plastikoko kuleruak hasi zian. Zea jarri, gasak, ta plastikoko kulerua ta zea... Diferentzi bat bai zaharrenetik bigarreña... egundokua!
- Errexo?
- P.: Errexo. Askozez gutxiyo zikindu ta busti ta... Ohiyan´e, zea, hule jarri ta zea... Bueno, siheskan ta... Zea zan, e! Oain zikiña iruitzen da, e... Hoi gauza, e! Oain beti garbitzen. Siheska...
- J.M.: [... partera] etorri ta zean, hoi, katxarro hoi, garbitu, baiñua, atzea-aurrea... buu!
- P.: Zea...
- J.M.: Lehenoko kontuak hala zian ta...
- Zer, nola baiña? Ze iten zun? Nola garbitzen zun?
- P.: Palanka...
- J.M.: Baldian...
- P.: Balde batian ura jarri ta...
- J.M.: Ni orduan ez nitzan egoten, baiña beak garbitu parterakin aurreneko egunetan ta... Hola. Ohian, hor.

21. Arropak garbitu eta lehortzeko lanak

- **Erref:** ZAR-134/045
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:09:23. **Bukatu:** 01:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Lehen garbigailurik ez zegoen eta arropa lehertzeko ere lanak izaten zituzten: sukaldean soka batean jartzen zuten arropa zintzilik, ekonomikako suaren berotasunarekin lehenago lehortzen baitzen. Oraingo arrokek usain gehiago hartzen dute lehengo arrokek baino.

22. Mezara joateko janzkera

- **Erref:** ZAR-134/046
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:10:47. **Bukatu:** 01:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lehen igandetan gizonak trajea eta gorbata janzten zuten. Mezara joateko, besoak eta hankak estali egin behar ziren; emakumeek buruko zapia eramaten zuten eta gizonak txapela kentzen zuten.

23. Lutoa zenean, beltzez joan behar

- **Erref:** ZAR-134/047
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:12:08. **Bukatu:** 01:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Mezara joateko, buruko zapia era batekoa edo bestekoa zen lutoaren arabera. Lehen lutoa errespetatzen zen, beltzez joan behar izaten zen. Arropa tindatu egiten zuten beltzez, besterik ez bazen.

24. Barruko arropa lehen

- **Erref:** ZAR-134/048
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:13:00. **Bukatu:** 01:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lehen barruko arropa jostunak egiten zuen. Barruko arropa nolakoa izaten zen azaltzen dute.

25. Zoriontasunaren sekretua

- **Erref:** ZAR-134/051
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:20:05. **Bukatu:** 01:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

60 urte eman izan dituzte elkarrekin. Elkarri errespetatzea, bestearen nahia egitea, elkarrekin hitz egitea... horiek izan dira, besteak beste, beren harreman onaren giltzak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com